



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urtarrilaren 30a

13. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Murchanteko Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Murchanteko Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Murchanteko Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Murchanteko Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- |   |   |
|---|---|
| <p><b>I.</b> Sarrera (3. or.).</p> <p><b>II.</b> Murchanteko Udala (4. or.).</p> <p><b>III.</b> Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (5. or.).</p> | <p><b>IV.</b> Iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1 Auditoretza finantzarioko iritzia (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (7. or.).</p> <p><b>V.</b> Kontu orokorraren laburpena (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Aurrekontu-betetzearen egoera-orria (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Aurrekontu-emaitzaren egoera-orria (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Egoera-balantzea (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Galeren eta irabazien kontua (11. or.).</p> <p><b>VI.</b> Konklusioak eta gomendioak (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Udalaren aurrekontu orokorra (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2018-12-31n (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Kudeaketa-alor aipagarriak (16. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (25. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioen erantzuna (26. or.).</p> |
|---|---|

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta 2019rako fiskalizazio-programari jarraituz, Murchanteko Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, honako hauek deskribatzen ditugu: udal antolamendua, toki entitateak ematen dituen zerbitzuak eta araudi erregulatzaila; hirugarrenean, fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa azaltzen ditugu, eta laugarrenean Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorri buruzko gure finantza-iritzia eta legezatasuna betetzeari buruzkoa ematen ditugu. Bosgarren atalean, Kontu Orokorren laburpen bat erantsi dugu. Seigarrenean, honako gai hauei buruz lortutako konklusio eta gomendioak ematen ditugu: Udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Landa-lana 2019ko urria eta azaroa bitartean egin zuen kontratatutako auditoretza-enpresa batek, auditore baten gainbegiratzearen eta zuzendaritzaren pean, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzarekin.

Jarduketa horren emaitzak Murchanteko Udaleko alkateari eta alkate ohia jakinarazi zitzaizkien, egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zitzaten, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Emandako epean, Murchanteko Udaleko alkateak aurkeztu ditu alegazioak.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. MURCHANTEKO UDALA

Murchante udalerrri bat da, 2018ko urtarrilaren 1ean 4.088 biztanle zituen eta 13,4 Km<sup>2</sup>-ko azalera duena.

Udalaren gobernu-organoak Osoko Bilkura eta Alkatea dira.

Udala ez da erakunde autonomoetz edo udal-zerbitzuak emateko erakunde instrumentalez hornitu.

2018ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Udalaren funtsezko datu ekonomikoak eta langile-arlokoak:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2018-12-31n
Udala	3.516.050	3.184.091	25
Guztira	3.516.050	3.184.091	25

Udalak ondoko entitateetan hartzen du parte:

- Hego Nafarroa Kirol Mankomunitatea, zeinak haur-kategoriako kirol zerbitzuak ematen baititu, bai eta Udalaren kirol instalazioetako sorosleen eta kirol monitoreen zerbitzuak ere.
- Moncayoko Ur Mankomunitatea, uraren ziklo integralaren kudeaketaz arduratzen dena.
- Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea, zeinaren bidez zaborrak biltzeko zerbitzua, bidegarbiketarena eta hirigintzarena (ORVE) ematen baititu.
- Queiles Ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, oinarrizko gizarte zerbitzuak emateko.

Zerbitzu mankomunatu horiek 184.099 euroko gastua ekarri diote Udalari.

Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Udal zerbitzuak	Zuzeneko kudeaketa Udala	Zeharkako kudea-Zerbitzu-kontratua	Mankomunitatea
Argiteria publikoa		X	
Hilerria	X		
Kale garbiketa			X
Edateko uraren etxeetako hornidura			X
Estolderia			X
Hondakinen tratamendua eta bilketa			X
Babes zibila	X		
Gizarte zerbitzuak			X
Kirol instalazioak	X		X
Musika eskola	X		

2018an Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta araudi sektorial indarduna ere.

### III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Murchanteko Udalaren 2018ko ekitaldiko finantza-fiskalizazioa eta legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa egin dira, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2018ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei buruz ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.
- Ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduketak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrean jasotako informazioa bat etortzeari buruz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion araeuekin.

Aurreko iritzia emateaz gainera, lanak barne hartu du 2018rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetze-maila berrikustea.

Fiskalizazioaren norainokoa 2018ko Kontu Orokorra da, zeina, 272/1998 Foru Dekretuaren arabera, honako kontabilitateko egoera-orri hauek osatzen baitute:

- Udalaren beraren kontua:

Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.

b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea: Egoera-balantzea eta Galeren eta Irabazien Kontua.

c) Eranskinak: Diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria, balioen egoeraren egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.

- Kontu Orokorraren eranskinak: Oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena..

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2018ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legezkotasuna betetzeari dagokionez, irismena txosten honen VI. epigrafean aipatzen diren berrikusitako jarduketeki dagokie.

#### IV. IRITZIA

Murchanteko Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

##### *Udalaren erantzukizuna*

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzea den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dagoen Kontu Orokorra egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptioa, ezarpena eta mantentzea.

Udaleko Osoko Bilkurak 2019ko maiatzaren 23an onetsi zuen Kontu Orokorra.

Udalak bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak.

##### *Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2018ko ekitaldiko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruz ISSAI-ES 200en ezarritakoen arabera, bai eta betetzearen fiskalizazioari buruzkoa den ISSAI-ES 400 delakoan ezarritakoen arabera; halaber, kanpo kontrolako organoen fiskalizazioari buruzko gida praktikoak erabili ditugu. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbaterikoei eta informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorraren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egingandako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, aurkezpen hori bere osotasunean hartuta.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta betetzearen gainean egin dugun fiskalizazioari buruzko iritziak funtsa izateko.

#### IV.1 AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

##### *Iritziaren oinarria, salbuespenekin*

Ondasunen inbentarioa 2017ko ekitaldian egin zen, eta ez ditu jasotzen Udalaren ondasun eta eskubide guztiak; hartara, ezinezkoa izan da ibilgetuaren kontabilitate-saldoaren arrazoikotasuna egiaztatzea; saldo horrek 16.986.515 euro zituen 2018ko abenduaren 31ko egoera- balantzean.

##### *Auditoretza finantzarioko iritzia, salbuespenekin.*

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" atalean azaldutako irismenaren mugak izan ditza-keen eraginengatik ez bada, Udalaren erantsitako Kontu Orokorrak irudi leiala erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari eta Udalaren 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, ber- tan jasotako kontabilitateko eta aurrekontu-arloko printzipio eta irizpideei jarraituz.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### *Iritziaren oinarria, salbuespenekin*

251.090 euroko gastuak ordaindu dira kontratu-euskarririk gabeko zenbait zerbitzu emateagatik, kasu batzuetan dagokion adjudikazio-prozedura izapidetu ez delako, eta beste batzuetan kontratuen gehie- neko indarraldia gainditu delako. Gastu horiek ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten kapituluan ai- tortutako betebeharrak guztien ehuneko 21 izan dira.

##### *Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia, salbuespenekin*

Gure iritziz, egindako lanaren irismena kontuan hartuta, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" para- grafoan azaldutako ez-betetzearen eraginengatik ez bada, Udalaren 2018ko ekitaldiko jarduerak, fi- nantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, ga- rrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

**V. KONTU OROKORRAREN LABURPENEA**

Ondoren, 2018ko Kontu Orokorraren kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenak azaltzen ditugu:

**V.1. AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA****Gastuak, kapituluz kapitulu**

Deskribapena	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketa (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	1.151.204	16.000	1.167.204	1.131.247	97	1.118.066	99	13.181
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	1.253.601	25.000	1.278.601	1.196.093	94	1.163.168	97	32.925
3. Gastu finantzarioak	1.100	-	1.100	-	-	-	-	-
4. Transferentzia arruntak	115.950	-16.990	98.960	92.090	93	92.090	100	-
6. Inbertsio errealak	319.317	2.029.597	2.348.914	721.270	31	638.950	89	82.320
9. Finantza-pasiboan aldaketa	44.000	-	44.000	43.391	99	43.391	100	-
<b>Guztira</b>	<b>2.885.172</b>	<b>2.053.607</b>	<b>4.938.779</b>	<b>3.184.091</b>	<b>64</b>	<b>3.055.665</b>	<b>96</b>	<b>128.426</b>

**Diru-sarrerak kapituluz kapitulu**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenaren aldaketa	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	% Kobrantza	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	917.200	-	917.200	95,72	892.053	93	65.369
2. Zeharkako zergak	25.000	-	25.000	92,00	24.363	99	281
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	393.656	-	393.656	92,38	352.871	95	19.542
4. Transferentzia arruntak	1.454.451	-	1.454.451	96,63	1.654.557	100	1.839
5. Ondarezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	46.657	-	46.657	100,00	47.175	100	-
7. Kapital-transferentziak	48.209	412.712	460.921	95,63	457.999	100	-
8. Finantza-aktiboak	-	1.640.895	1.640.895	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>2.885.173</b>	<b>2.053.607</b>	<b>4.938.780</b>	<b>71</b>	<b>3.429.018</b>	<b>98</b>	<b>87.031</b>



## V.2. AURREKONTU-EMAITZAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2017*	2018
+ Aitorturiko eskubide garbiak	2.843.852	3.516.050
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	2.589.456	3.184.091
Aurrekontu-emaiza	254.396	331.959
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	24.174	121.939
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	32.000	57.135
Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturako gastuak	26.899	41.523
<b>Aurrekontu-emaiza doitua</b>	<b>289.121</b>	<b>308.678</b>

\* Auditatu gabeko ekitaldia.

## V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2017*	2018
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	79.733	98.704
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	64.804	87.114
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	242.044	230.208
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	1.436	300
(-) Bilketa zaileko eskubideak	228.486	218.883
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	65	35
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	188.411	216.326
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	90.866	128.426
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	6.230	3.806
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	91.315	84.094
(+) Diruzaintzako funts likidoak	2.033.038	2.379.559
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	32.000	57.135
<b>Diruzaintza-gerakina, guztira</b>	<b>1.956.360</b>	<b>2.319.073</b>
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	4.335	85.655
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	-	4.284
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina</b>	<b>1.952.025</b>	<b>2.229.134</b>

\* Auditatu gabeko ekitaldia.

## V.4. EGOERA-BALANTZEA

## Aktiboa

Deskribapena	2017*	2018
<b>A Ibilgetua</b>	<b>16.265.245</b>	<b>16.986.515</b>
1 Ibilgetu materiala	12.215.309	12.782.874
2 Ibilgetu ez-materiala	288.473	353.286
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	3.548.438	3.637.330
4 Herri-ondasunak	212.064	212.064
5 Finantza-ibilgetua	961	961
<b>C Zirkulatzaila</b>	<b>2.341.322</b>	<b>2.697.181</b>
8 Zordunak	308.284	317.622
9 Finantza-kontuak	2.033.038	2.379.559
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>18.606.567</b>	<b>19.683.696</b>

\* Auditatu gabeko ekitaldia.

## Pasiboa

Deskribapena	2017*	2018
<b>A Funts berekiak</b>	<b>18.038.969</b>	<b>19.131.604</b>
1 Ondarea eta erreserbak	12.339.816	12.819.369
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	479.553	638.619
3 Kapitaleko dirulaguntzak	5.219.600	5.673.616
<b>B Epe luzeko zorrak</b>	<b>379.123</b>	<b>335.731</b>
1 Jasotako maileguak	379.123	335.731
<b>D Epe laburreko hartzekodunak</b>	<b>188.475</b>	<b>216.361</b>
6 Aitortutako betebeharreratiko hartzekodunak	97.095	132.231
7 Administrazio publikoak	22.586	25.212
8 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	68.728	58.883
9 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	66	35
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>18.606.567</b>	<b>19.683.696</b>

\* Auditatu gabeko ekitaldia.

## V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2017*	2018	Hartzeko	2017*	2018
Deskribapena			Deskribapena		
61 Langile-gastuak	1.113.604	1.141.946	70 Salmentak	346.961	341.906
62 Finantza-gastuak	-	-	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	69.158	56.225
63 Tributuak	-	-	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	712.790	715.679
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.126.737	1.185.394	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	227.422	241.645
65 Gizarte prestazioak	-	-	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	3.709	3.999
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	1.415.312	1.652.397
67 Transferentzia arruntak	111.189	92.090	77 Kapitalaren gaineko zergak	23.942	24.742
68 Kapital-transferentziak	-	-	78 Bestelako diru-sarrerak	34.058	25.441
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	-	-	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	-	-
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	481.822	642.604	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-
<b>Guztira</b>	<b>2.833.352</b>	<b>3.062.034</b>	<b>Guztira</b>	<b>2.833.352</b>	<b>3.062.034</b>

\* Auditatu gabeko ekitaldia.

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2017*	2018	Deskribapena	2017*	2018
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	481.822	642.604
82 Ezohiko emaitzak	-	-	82 Ezohiko emaitzak	-	-
84 Itxitako aurrekontuetako aitortutako eskubideen eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	1.420	3.985	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	-	-
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	480.402	638.619	89 Etekin garbia, guztira (saldo zorduna)	-	-
<b>Guztira</b>	<b>481.822</b>	<b>642.604</b>	<b>Guztira</b>	<b>481.422</b>	<b>642.604</b>

\* Auditatu gabeko ekitaldia.

**VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK**

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

Halaber, jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

**VI.1. UDALAREN AURREKONTU OROKORRA**

Udalaren 2018rako hasierako aurrekontuak 2,89 milioi euroko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak zeuzkan.

2,05 milioi euroko aurrekontu-aldaketa batzuk eginda —hasierako kredituen ehuneko 71 egiten dute—, 4,94 milioi eurokoak dira aurreikusitako behin betiko gastu eta diru-sarrerak.

*Aurrekontuaren likidazioa*

2018an, gastuek 3,18 milioi euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 64koa eta ordaintze-maila ehuneko 96koa izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2018an 3,52 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, eta betetze- eta kobratze-mailak ehuneko 71 eta 98koak izan ziren, hurrenez hurren.

Taula honetan ageri dira Udalaren gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-iturria	Zenbatekoa
Langileak	36	Tributu bidezko diru-sarrerak	37
Bestelako gastu arruntak	40	Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak	60
Inbertsio errealak	23	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste-lakoak	3
Finantza-pasiboen aldaketa	1		

Gastu arruntek guztizko gastuaren ehuneko 76 esplikatzeko dute, eta inbertsioek, berriz, ehuneko 23. Diru-sarrerei dagokienez, iturri nagusia transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak dira, ehuneko 60 izan baitira, eta Udalaren diru-sarrera propioak baino handiagoak (ehuneko 40) dira, eta horietatik ehuneko 37 zerga-arlokoak dira.

Ondoren, 2018ko eta 2017ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle guztien alderaketa bat erakusten dugu:

	2017	2018	Aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	2.843.852	3.516.049	24
Aitortutako betebeharrak, guztira	2.589.456	3.184.091	23
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	2.833.352	3.058.050	8
Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	2.351.530	2.419.430	3
Kapitaleko diru-sarrerak	10.500	457.999	4.262
Kapitaleko gastuak	194.535	721.270	271
Finantza-eragiketengatikoko gastuak	43.391	43.391	-
Saldo ez-finantzarioa	297.787	375.349	26
Aurrekontu-emaizta doitua	289.121	308.678	7

Aurreko datuak eta haien bilakaera direla-eta honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2018ko diru-sarreren likidazioa 0,67 milioi euro handitu zen, eta horrek ehuneko 24ko hazkundera ekarri du aurreko ekitaldiarekiko, batez ere kapitaleko diru-sarrerak 0,45 milioi euro handitu zirelako —hau da, % 4.262— aurreko ekitaldiarekiko.
- 2018an aitortutako betebeharrak 0,60 milioi euro handitu ziren 2017arekin alderatuta; hau da, % 23ko igoera izan zen, batez ere inbertsio-gastuen betetzea 0,53 milioi euro handiagoa izan zelako, % 271 handiagoa aurreko ekitaldian baino.
- Aurrekontu-emaizta doitu 0,31 milioi eurokoa da, eta 19.557 euro handitu da; hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta ehuneko zazpiko igoera izan da.

## VI.2. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2018-12-31n

Ondoren 2018ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2017	2018	Aldea (%)
Aurrezki gordina	481.822	638.620	33
Finantza-zama	43.391	43.391	-
Aurrezki garbia	438.431	595.229	36
Finantza-zamaren adierazlea	% 2	% 1	-7
Aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehuneko	% 17	% 21	23
Zorpetze-ahalmena (%)	% 15	% 20	33
Zorra, guztira	390.521	347.130	-11
Zorpetze-maila (zor bizia/diru-sarrera arruntak)	% 14	% 11	-18
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.952.025	2.229.133	14
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubideak)	% 46	% 37	-18
Kobranta zalantzarriaren indizea (Kobranta zalantzarriko zordunen saldoa/zordunak)*100	% 74	% 69	-7

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, ondoko alderdiak aipatu nahi ditugu:

- 2018an, aurrezki gordina aurreko ekitaldiko baina ehuneko 33 handiagoa izan da, diru-sarrera arrunten igoera handiagoa izan delako funtzionamendu-gastuena baino. Horrenbestez, ekitaldiko finantza-zama mantendu egin denez, aurrezki garbia 0,60 milioi euroraino igo da, eta horrek adierazten du Udalak nahikoa baliabide arrunt sortu zituela funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamei aurre egiteko.
- Finantza-zamaren indizea ehuneko zazpi jaitsi da aurreko ekitaldikoarekiko, finantza-zama etengabe mantendu delako eta diru-sarrera arruntak handitu direlako. Aurrezki gordina handitu zenez, honako hauen portzentajeak ere handitu ziren: diru-sarrera arrunten gaineko portzentajea, ehuneko 23, eta zorpetzeko gaitasunaren portzentajea ere, ehuneko 33. Magnitude positibo horiek, izan ere, finantza-zamaren indizeak hain garrantzi txikia duenez, Udala egoera saneatuan jartzen dute etorkizuneko zorpetze-eragiketen aurrean.
- Udalaren 2018ko abenduaren 31ko zor bizia, inbertsioak finantzatzeko 2006an formalizatutako 0,90 milioi euroko kreditu-poliza bati dagokio; 20 urterako hartutako kreditua izan zen. Muga hori, Nafarroako Toki Administrazioarentzako Kontabilitatearen Jarraibide Orokorra onetsi zuen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, proportzionalki gutxitzen da urtero, eta, beraz, aurrekontu-exekuzioaren egoera-orriak gutxitze horri dagokion zenbatekoa jasotzen du urtero; hori dela eta, ekitaldi bakoitzaren itxieran, diruzaintzako izakinetan dagoen saldoa eta polizaren muga jasotzen dira egoera-balantzean.
- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak ehuneko 14 egin du gora 2017ko ekitaldikoarekin alderatuta, eta 2,23 milioi euroko kopurura iritsi da. Magnitude positibo horrek adierazten du hurrengo ekitaldian aurrekontu-aldaketak finantzatzeko likidezirik badagoela.
- Autonomia fiskalaren indizea ehuneko 18 jaitsi da, baina horrek ez du zerikusirik zergen bidezko diru-bilketaren jaitsierarekin, baizik eta guztizko diru-sarreraren igoera nabarmenarekin, batez ere kapital-transferentzien ondoriozko diru-sarreraren igoerarekin.

**Azken batean**, finantza-egoerari dagokionez, saneatua dela ondoriozta daiteke; izan ere, aztertutako adierazleak positiboak dira eta, gainera, aldaketa positiboak izan dituzte aurreko ekitaldiarekiko.

### VI.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionalen irizpideak jarraituta, soilik Udala bera jotzen da administrazio publikotzat; hona hemen haren datuak:

- Aurrekontu-egonkortasuna.

382.894 euroko finantzaketa-gaitasuna sortu da.

#### Finantzaketaren gaitasuna/beharra

	Zenbatekoa, 2018
Finantzaz besteko diru-sarrerak	3.516.050
Gastu ez-finantzarioak	3.140.700
Saldo ez-finantzarioa	375.350
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreraren kobrantzak	7.544
Finantzaketa-gaitasuna	382.894

- Gastuaren araua.

2018ko ekitaldiko gastu konputagarria 214.907 euro txikiagoa da gehieneko gastu-muga baino; beraz, bete egiten da gastu-araua, ez baita gainditzen 2018rako baimendutako alde-tasa, ehuneko 2,4koa.

#### Gastu-araua

	Zenbatekoa, 2018
2017ko gastu konputagarria	2.216.450
% 2,4ko igoera	2.269.645
2018rako aurreikusitako gastu-muga	2.269.645
2018ko gastu konputagarria	2.054.738
2018ko gastuan izandako desbideratzea	-214.907

- Iraunkortasun finantzarioa

a) 2018ko abenduaren 31ko zor bizia 347.130 eurokoa da, eta zenbateko horrek 2018ko ekitaldiko diru-sarrera arruntan ehuneko 11 egiten du; beraz, portzentajea toki ogasunen esparruak ezartzen duen ehuneko 110eko mugatik behera dago.

b) Merkataritza-zorraren iraunkortasunaren baldintza bete egiten da, zeren eta ez baita gainditzen 30 egun baino gehiagotan berankortasunari buruzko araudian hornitzaileei ordaintzeko ezarrita dagoen gehieneko epea.

#### Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

	Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea
Lehenengo hiruhilekoa	-17,94
Bigarren hiruhilekoa	9,32
Hirugarren hiruhilekoa	8,37
Laugarren hiruhilekoa	5,52

Ordaintzeko batez besteko epeak lehen hiruhilekotik gainerako hiruhilekoetara izan duen bilakaerak ez du esan nahi adierazleak okerrera egin duenik; aitzitik, 2018ko apiriletik aurrera aplikatu beharrekoa den 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritako kalkulu-metodologia berriaren ondorioa da.

## VI.4. KUDEAKETA-ALOR AIPAGARRIAK

### VI.4.1. Alderdi orokorrak

2018ko ekitaldirako aurrekontua behin betiko onetsi zen, eta 2018ko urtarrilaren 17an NAO n argitaratu zenean jarri zen indarrean.

Kontu Orokorrari buruz egindako berrikuspenetik, honako hau adierazi nahi dugu:

- Ez da jaso tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostua kalkulatzeko memoriarik.
- 2017ko ekitaldian, Udalak inbentarioa eguneratzeko lana egin zuen, baina ondasun higiezinatarako, hiri-finketarako, landa-finketarako eta ibilgailuetarako soilik egin zen. Irismen horretatik kanpo geratu ziren, beraz, udal inbentarioa osatzen duten gainerako kontuak.

Eguneratze hori egin ondoren, Udalak eguneratze horren ondoriozko zenbatekoa ez zuen erregistratu —eta gaur arte ere ez du erregistratu— kontabilitateko balio gisa. 2018ko abenduaren 31n, kontabilitatean islatutako ibilgetuaren balioa 16,99 milioi eurokoa zen.

- Udalak ez du lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eratu. Inbentarioak, gainera, ez ditu berezita islatzen Lurzoruaren Udal Ondarea osatzen duten ondasunak.
- Kontu korranteetako ordainketen xedapena eta baimena modu mankomunatuan egiten dira, 10.000 eurotik gorako eragiketetatik abiatuta, eta baimendutako pertsona bakar baten banakako sinadura eskatzen da zenbatekoa txikiagoa denean.
- Gordailuzaintzaren saldoa 2018ko amaieran 168 eurokoa da, baina ekitaldian kutxako sarrerak eta irteerak 58.000 euro ingurukoak direla ikusi da. Sarrerak, batez ere, kirol-instalazioetako bonuenatik eta udal-zerengatik eskudirutan egindako kobrantzei dagozkie; irteerak, berriz, kontu korrantean diru-pilaketagatik egindako sarrerei, hainbat lehiaketarako sarien eskudiruzko ordainketei eta hornitzaile jakin batzuei egindako eskudiruzko ordainketei. Ordainketa horiek jasotzaileek sinatutako hartu-agirien bidez dokumentatzen dira batez ere, edo fakturan "ordainduta" zigilua agertzearen bidez.

Gure gomendioak:

- *Tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzu publikoen kostuen memoria egitea eta Kontu Orokorraren espedientean sartzea.*
- *Kontu korranteetan ordainketak xedatzeko eta baimentzeko sinadura mankomunatu eskatzea, horien zenbatekoa edozein dela ere.*
- *Gordailuzaintzaren eragiketak ahal den neurrian gutxitzea, eskudirua erabiltzeari lotutako arriskuak murrizteko.*
- *Udal-inbentarioa, bai eta egoera-balantzearen ibilgetuko datuekiko haren bateratzea ere, eguneratzea.*
- *Udalaren Lurzoru Ondarearen Erregistroa eratzea eta Udalaren Lurzoru Ondarea osatzen duten ondasunak inbentario orokorretik berezita adieraztea.*



#### VI.4.2. Barne-kontrola

Kontu-hartzailetzaren barne-kontrola dela eta, honako hau esan behar dugu:

- Tokiko aurrekontu- eta ogasun-esparruak eginkizun hirukoitza ezartzen du: kontu-hartzailearena, finantza-kontrolarena eta eraginkortasunaren kontrolarena. Udalean, Kontu-hartzailetzak ez du kontrol finantzariorik eta eraginkortasunaren gaineko kontrolik egiten.
- Udalaren barne kontrola soilik kontu-hartzailetzaren eginkizunaren bitartez egiten da, gastuen alde aurreko fiskalizazio osoaren bitartez. Barne-kontrolako eginkizunez gain, 6/1990 Foru Legeak Kontu-hartzailetzari emandako zereginak dira aholkularitza eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuena, bai eta kontabilitatea ere; eginkizun horiek Udaleko kontu-hartzaileak betetzen ditu, eta ez dago langile-baliabide gehiagorik.
- 2018ko ekitaldian, kontu-hartzailearen kontu orokorraren gaineko txostenean, hainbat zerbitzu-kontratutan kontratu-euskarria egokia ez izateari buruzko informazioa ageri da.

Gure ustez, informazio hori Kontu Orokorrean sartzea zuzena izatea kendu gabe, Udaleko Osoko Bilkurak horren berri izan dezan, desadostasunak izanez gero, halakoek eragozpen-oharraren berriarazko forma hartu beharko lukete, eta, hala badagokio, etete-izaera adierazi, tokiko ogasun-esparruan ezarritakoaren arabera.

Gure gomendioak:

- *Kontu-hartzailetzaren giza baliabideen nahikotasuna baloratzea barne-kontrola egiteko, eta, hala badagokio, finantza- eta eraginkortasun-kontrola egiteko behar beste baliabide ematea.*
- *Desadostasunak ikusten diren kasuetan, fiskalizatutako espedientei buruzko eragozpen-oharrak egitea.*

#### VI.4.3. Langile-gastuak

Langile-gastuak 1,13 milioi euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 97koa izan da. 2018ko ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 36 dira.

Hona gastu horien xehatzea eta 2017ekoekiko alderaketa:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2017	2018	
Goi-kargudunak	18.371	22.000	20
Funtzionarioak	293.058	328.573	12
Lan-kontratudun langileak	311.039	271.845	-13
Kuotak, prestazioak eta zama sozialak	482.006	508.829	6
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>1.104.474</b>	<b>1.131.247</b>	<b>2</b>

2017ko ekitaldiari dagokionez, gastu hori ehuneko bi handitu da, funtsean, aurrekontuei buruzko legeetan aurreikusitako langile publikoen ordainsari-igoeraren ondorioz, bai eta montepioari egindako ekarpen-nagatiko gastuaren igoeraren ondorioz ere.

Bestalde, adierazi nahi dugu funtzionarioen eta lan-kontratudun langileen partidetan izandako aldeak langile jakin batzuen soldata-gastuaren kontabilizazioan izandako irizpide-aldaketari dagozkiola, 2017an modu desegokian kontabilizatzen baitzen lan-kontratudun langileen partidan, eta 2018an modu egokian erregistratuta ageri baita funtzionarioen partidan.

2018ko plantilla organikoa honako lanpostu hauek osatzen dute:

<b>Lanpostu-kopurua</b>	
Funtzionarioak	14
Lan-kontratudun finkoak	5
<b>Guztira</b>	<b>19</b>

Honako hau da lanpostuen egoera 2018an:

	2018
Plantillako langileak	19
Postu beteak	6
Lanpostu hutsak	13
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	% 68
Betetako lanpostu hutsak	9
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)	% 69
Bete gabeko lanpostu hutsak	4
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	% 31

2018an, lanpostu guztien ehuneko 68 hutsik daude; horietatik, ehuneko 69 aldi baterako beteta daude eta gainerakoek, ehuneko 31k, bete gabe jarraitzen dute.

Langileen arloan berrikuspena egin ondoren, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Aldi baterako bete diren bederlatz lanpostu hutsetatik lau aldi baterako lan-araubidean ageri dira. 2000. eta 2003. urteen artean kontratatutako langileak ziren. Alkatetzaren 2017ko uztailako ebazpenaren bidez, aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe ez-finko bihurtu ziren, 2017ko maiatzeko lan-ikuskaritzako akta baten errekerimenduari erantzunez.
- Musika-irakaskuntzako zerbitzua Udalak berak kudeatzen du zuzenean, nortasun juridiko bereizirik gabeko administrazio-unitate baten bidez. Aldi baterako lan-araubidean kontratatutako 11 musika-irakasle ematen dute zerbitzua, eta lanpostu horiek ez daude jasota Udalak onetsitako plantilla organikoan.
- Udalak ez du lan-eskaintza publikoaren eskaintzarik onetsi 2018ko ekitaldirako. Hala ere, lan-eskaintza publiko batean sartzeko aukera emanen luketen lanpostuak berrikusi ditugu, 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitako aldi baterako enplegua egonkortzeko berrezarpen-tasek eta tasa gehigarriek ezartzen dituzten aukeren arabera, eta uste dugu egoera horretan sei lanpostu zeudela, aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa osagarriko eskatzen diren baldintzak betetzen zituztelako.
- 2018ko ekitaldian egindako aldi baterako kontratazioen lagin bat berrikusi dugu, eta behar bezala izapidetu zirela ondorioztatu dugu, nahiz eta akats formal batzuk hauteman diren.
- Langileen nominen lagin bati buruz egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, langileen espedienteak osorik daudela, gastuak zuzen kontabilizatuta daudela, atxikipeak zuzen egin direla, ordaindutako ordainsariak plantilla organikoaren arabera betetako lanpostuari eta espedienteetan jasotako administrazio-inguruabarrei eta familia-inguruabarrei dagozkiela, eta bat datozela araudian ezarritakoarekin, honako salbuespen honekin: 2018an 29.480 euro egiten duten aparteko orduak egin dira.

Gure gomendioak:

- *Egiturazko lanpostu hutsetarako deialdiak egitea, Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko legeetan ezartzen den aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarriko aukeren arabera.*
- *Aztertzea ez ote den komeni izaera iraunkorra edo egiturazkoa duten musika-irakasleen lanpostuak plantilla organikoan jasotzea.*
- *Langileek egin beharreko aparteko orduak aldeztatik baimentzea, eta horien beharra justifikatzea.*

**VI.4.4. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak**

Udalaren ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak, 2018an, 1,20 milioi eurokoak izan ziren — aurreikusitako kredituaren ehuneko 94—, eta ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 38 egiten dute. Gastu horiek aurreko ekitaldikoak baino ehuneko bost handiagoak izan ziren, hauetan gastuak igotzearen ondorioz: mantentze- eta kontserbazio-lanak, herriko jaiak eta kultur jarduerak.

Honako gastu-partida hauek berrikusi dira:

Aurrekontu-partida	Aitortutako betebeharrak, 2018
Herriko jaiak	145.839
0-3 zentroa: Kudeaketako langileen beste lan batzuk	120.762
Herri argiteria Energia elektrikoa	89.814
Kirola: Kirol jardueren kudeaketa	57.358
Ikastetxea: Garbiketaren kanpoko kudeaketa	38.417
Beste zerbitzu batzuk: Atsedinari buruzko tailerreko	33.935
0-3 zentroa: Garbiketako langileen beste lan batzuk	29.453
Kultura: Kultur eta kirol jarduerak: Askotariko gastuak	29.539
Herriko festak: Gaztediaren jaiak	24.717
Kale garbiketa: Hondakin solidoen mankomunitatea	23.089
Gazte-kluba: Aisiako jardueren kudeaketa	20.441
<b>Guztira</b>	<b>613.364</b>

2018ko ekitaldian ez da ez laguntza-kontraturik ez zerbitzu-kontraturik lizitatu.

Berrikuspena eginda, ateratzen dugun konklusioa da ezen, oro har, berrikusitako aurrekontu-partidetako gastuak egindako kontratuen arabera justifikatuta daudela, onetsita daudela, kontu-hartzaileak baimenduta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta epean ordaindu direla.

Dena den, akats hauek aipatu behar ditugu:

- Gastu hauek fakturatu dira, baina ez dago jasota alde aurreko lizitazio-prozedurarik egin izana:

Gastuak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Argindarraren hornidura	139.981
Argindarraren arloko mantentze-lanak	34.826
Udal Instalazioetako gas-hornidura	25.914
Aseguruak	24.751
<b>Guztira</b>	<b>225.472</b>

- Hurrengo gastua aurreko adjudikazio-hartzaileak ematen jarraitu du, aurreikusitako luzapen guztiak agortu diren arren, eta ez da zerbitzu horren lizitazio berririk egin:

Gastua	Aitortutako betebeharrak, 2018
0-3 ikastetxeko catering-zerbitzua	25.618
<b>Guztira</b>	<b>25.618</b>

*Gomendatzen dugu kasuko kontratazio-espeditenteak lizitazeari kontratuen indarraldia amaituta duten zerbitzuen kasuan eta zenbatetsitako balioaren arabera araudi indardunak hala aurreikusten duen kasuetan.*

**VI.4.5. Transferentzia arruntengatiko gastuak**

Udalaren transferentzia arruntetako gastuak 92.090 eurokoak izan ziren, eta gastuen ehuneko hiru egiten dute; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 93koa izan zen.

Kapitulu honetako gastuak ehuneko 17 jaitsi dira aurreko ekitaldiarekiko; horren arrazoia da, nagusiki, 2017an 10.000 euroko ekarpena sartu zela musika-bandarako; 2018ko ekitaldian, berriz, gastu horri zerbitzu-kontratuen kontratu- eta aurrekontu-tratamendua eman zaio.

Honako gastu-partida hauek berrikusi dira:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2018)
Queiles Ibarra Oinarrizko Gizarte Zerbi-	63.008
Hegoaldeko Nafarroa Kirol Mankomunita-	15.737
Murchanteko futbol kluba	4.200
Kultur entitateak	1.750
<b>Guztira</b>	<b>84.695</b>

Berrikuspen hori eginda, esan beharra daukagu ezen, oro har, transferentziak eta dirulaguntzak aplikatzekoa den araudiaren arabera eman, kudeatu eta ordaindu direla:

Halaber, aipatu beharra daukagu Udalak dirulaguntzei buruzko plan estrategiko bat baduela, bai eta dirulaguntzen ordenantza orokor bat ere.

**VI.4.6. Inbertsioak**

Aitortutako betebeharrak 721.270 eurokoak izan dira, eta behin betiko kredituen gaineko ehuneko 31ko betetze-ehunekoa izan dute. Ehuneko apal horren arrazoia da 2018ko ekitaldiko aurrekontuan sartu dela, osorik sartu ere, obra jakin batzuk egitea, baina obra horiek ia guztiz 2019ko ekitaldian egin direla.

Inbertsioetako gastuak ekitaldiko gastu guztien ehuneko 23 egin du 2018an.

Honako hauek izan dira kapitulu honetako 2018ko gastu aipagarrienak:

Aurrekontu-partida	Aitortutako betebeharrak, 2018
Kontsultategia handiagotzea	272.544
Kiroldegiko instalazioak handiagotzea	81.048
Erretirodunen Klubeko igogailua, toki azpiegituren plana	43.449
P bidea. Zoladurak egokitzea: Cofrete kalea, Tejerías	32.819
Hondakinen bilketarako puntu garbia egokitzea	30.796
P bidea. Ibaiko etxeen eta Cierzo kalearen arteko lotura egokitzea	30.752
Kontsultategia: proiektua, obra-zuzendaritza, koordinazioa, segurtasuna eta	29.484
Kiroldegiko proiektua, zuzendaritza, lan teknikoa	26.178
<b>Guztira</b>	<b>547.070</b>

2018ko ekitaldian adjudikatutako kontratuen honako lagin hau aztertu dugu:

Deskribapena	Adjudikazio-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa*	Zenbat lizitazio-tzaile	Adjudikazioaren zenbate-	Beherapena (%)
Murchanteko kirol eremua handiagotzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	1.193.429	3	1.148.913	4
Kontsultategi medikoa handiagotzea	Lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatua**	309.805	1	306.685	1

\* Zenbatekoa BEZik gabe

\*\*Udalak Europar Batasuneko atalasetik beherako prozedura ireki bat hasi du, baina eskaintzarik jaso ez denez, lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatu bat hasi du, eta hiru enpresa gonbidatu ditu. Horietatik bakarrak aurkeztu du eskaintza.

Aurreko kontratuen berrikuspenetik ondorioztatzen dugu adjudikazioa Kontratu Publikoetarako buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen arabera egin dela, nahiz eta Udalak ez duen Kontratazio Atarian argitaratu kontratu horien adjudikazioa.

2018ko ekitaldiari dagokion zatia kontratuetan ezarritakoaren arabera gauzatu da; beraz, ziurtagiriak behar bezala kontabilizatu dira eta epearen barruan ordaindu dira.

*Kontratuei buruzko legeriak berariaz aurreikusten dituen esleipenak Kontratazio Atarian argitaratzea gomendatzen dugu.*

#### VI.4.7. Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

##### Zergak

Zergak Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 28 egiten dute. Hona hemen haien osaera eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzentajea 2018/2017
	2017	2018	
Zuzeneko zergak	931.185	957.422	3
Lurraren kontribuzioa	623.261	619.007	-1
Ibilgailuak	227.422	241.645	6
Lurren balio-gehikuntza	23.942	24.742	3
JEZa	56.560	72.029	27
Zeharkako zergak	32.969	24.644	-25
EIOZa	32.969	24.644	-25
<b>Guztira</b>	<b>964.154</b>	<b>982.066</b>	<b>2</b>

2018. ekitaldirako zerga-tasak honako hauek dira:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,30	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,40	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	15	8-25
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4,10	2 - 5

Honako zerga hauek aztertu ditugu:

Zerga	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Lurraren kontribuzioa	619.007
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	24.644

Aipatutako zergen lagin bat berrikusita, egiaztatu dugu ezen, orokorrean, zergen likidazioa eta haien diru-bilketa ordenantzen eta arau erregulatzailen arabera egin direla.

*Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk*

Honako hauek dira 2018an tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk direla-eta aitortutako diru-sarrerak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

Tasen, prezio publikoen eta bestelakoen diru-sarreraren bi-dezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea, por-tzentajea 2018/2017
	2017	2018	
Musika eskola	65.843	55.206	-16
Haur-eskolak, irakaskuntza	61.072	54.909	-10
Kirol-zerbitzuak: abonua, sarrerak	46.012	50.650	10
Elektrizitatea hornitzen duten enpresen aprobetxamendu-tasak	32.505	33.800	4
Kirol-zerbitzuak: ikastaroak, igeriketa...	30.040	27.227	-9
Dinamizatzaile sozialaren tasa: Jantoki soziala	19.272	21.165	10
Dinamizatzaile sozialaren tasa: Gazteentzako zentroa	6.528	12.807	96
Bestelako diru-sarrerak	141.307	116.650	-17
<b>Guztira</b>	<b>402.579</b>	<b>372.414</b>	<b>-7</b>

Diru-sarrerak ehuneko zazpi jaitsi dira 2017koekin alderatuta, batez ere berandutze-interesek, premia-mendu-errekarguek eta aurrekontu itxien itzulketak diru-sarreretan eragindako beherakadaren ondorioz.

Diru-sarreraren honako partida hauek berrikusi ditugu:

Aitortutako eskubide garbiak, 2018	
Musika eskola	55.206
Kirol-zerbitzuak: abonua, sarrerak	50.650

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen likidazioa eta diru-bilketa aplikatzekoa den araudiaren arabera egin direla; halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Udalak, kirol-zerbitzuetako sarreraren eta abonuen diru-sarrerak kontabilizatu eta kobratu ondoren, justifikazio-agiri jakin batzuk ez ditu gorde, eta, beraz, ezin izan da 2018ko ekitaldiari dagokion dokumentazio hori egiaztatu. Berrikuspina 2017ko eta 2019ko ekitaldietara zabaldu dugu, eta egiaztatu ahal izan dugu, halaber, halakoak falta direla.

*Kontabilitateko egoera-orrietan erregistratutako edozein ohar justifikatzeko euskarri-dokumentazioa legez ezarritako epean gordetzea gomendatzen dugu.*

**VI.4.8. Transferentzien bidezko diru-sarrerak**

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 1,66 milioi eurokoak eta 0,46 milioi eurokoak izan dira hurrenez hurren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 60 dira. Hona haien eta 2017ko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

Transferentzien bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2018/2017
	2017	2018	
Toki ogasunen funtsa	1.120.492	1.169.689	4
Montepioaren finantzaketa	109.814	253.688	131
0-3 urteko haur eskola	69.722	83.478	20
Enplegu sozial babestua	34.800	66.000	90
Hautetsien lansariak	31.501	32.162	2
Musika eskola	34.211	30.328	-11
Kontsultategia	7.531	7.850	4
Beste laguntza batzuk	4.316	7.318	70
<i>Guztizkoa atal honetan (Nafarroako Gobernua)</i>	<i>1.412.387</i>	<i>1.650.513</i>	<i>17</i>
Estatuarena	3.774	3.999	6
Toki entitateenak eta beste batzuenak	2.859	1.885	-34
<i>Beste hainbat entitate, honaino, guztira</i>	<i>6.633</i>	<i>5.884</i>	<i>-11</i>
<b>4. kapitulua, transferentzia arruntak, guztira</b>	<b>1.419.020</b>	<b>1.656.397</b>	<b>17</b>
Nafarroako Gobernuarenak	2.500	454.016	18061
Toki entitateenak eta beste batzuenak	0	3.983	100
<b>7. kapitulua, kapital-transferentziak, guztira</b>	<b>2.500</b>	<b>457.999</b>	<b>18220</b>

Transferentzia arruntek gora egin dute 2017koekin alderatuta, batez ere toki ogasunek Nafarroako tribu-tuetan parte hartzeko duten funtsa handitu delako eta Montepioaren 2017ko defizita finantzatzeko 135.357 euroko ezohiko laguntza jaso delako.

Kapital-transferentziei dagokienez, 2018ko ekitaldian igoera hain handia izatearen arrazoia da Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak jaso direla obra jakin batzuk finantzatzeko, 2017-2019ko Tokiko Inbertsioen Planaren barruan.

Transferentzien kapitulan, Udalaren aurrekontu-informazioaren eta Foru Komunitateko Administrazioaren arteko koherentzia berrikustez gainera, Nafarroako Gobernuaren aldetik jasotako transferentzia eta dirulaguntza hauen lagin bat berrikusi dugu:

Transferentzia arruntak	Aitortutako eskubideak, 2018
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arrunta, haurtzaindegia funtzionamendurako	83.478
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak, Nafar Lansare/ EGF	66.000
Kapital-transferentziak	Aitortutako eskubideak, 2018
Toki azpiegituren plana. Determinazio askea. Erretirodunen Klubeko igogailua	12.075
Toki azpiegituren plana. Determinazio askea. Kiroldetiko zorua	16.785
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, kontsultategia handiagotzeko	299.211

Egindako lanarekin, egiaztatu dugu ezen, oro har, transferentziak eta dirulaguntzak aplikatzeko den araudiaren arabera kontabilizatu eta kudeatu direla.

#### VI.4.9. Ingurune teknologikoa

Informazio- eta teknologia-sistemek funtsezko eginkizun bat dute edozein erakunderen kudeaketan. Daukaten garrantzia dela eta, Murchanteko Udalaren Kontu Orokorrari buruzko txostenean, lehenengo aldiz, konklusio batzuk jaso ditugu “ingurune teknologikoari” edo informazio ekonomiko-finantzarioko sistemei buruz eta informazio-teknologien gaineko Udalaren kontrolei buruz.

Informazioaren teknologien kudeatzailea enpresa pribatu bat da. Azterketa hori egiteko, galdetegi orokor bat bidali eta dokumentazioa eskatu genuen; horrek aukera emanen zigun ingurune teknologikoa orokorrean ebaluatzeko.

Egin dugun berrikuspenean oinarritua, honako hau adierazi behar dugu:

- Ez zaio heldu Segurtasun Eskema Nazionalaren arabera ezarpenari.
- Segurtasun- eta operazio-kontuetan gabezia handiak daude, segurtasun-kopien sisteman izan ezik.
- Jasota dago datuak babesteko ordezkararen izendapena egin dela, eta arriskuak tratatzeko eta aztertzeke jardueren erregistroa lantzen ari da.

Gure gomendioak:

- *Segurtasun Eskema Nazionalaren arabera ingurune teknologikoa ezartzea.*
- *Informazioaren segurtasunaren arloko segurtasun-ekintzak, protokoloak eta eragiketak premiaz berrikustea.*

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditora arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2019ko abenduaren 27an

Lehendakaria,  
Asunción Olaechea Estanga



**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

2019ko abenduaren 23an, Nafarroako Kontuen Ganberak 2018ko ekitaldia fiskalizatzeko egindako behin-behineko txostena jaso genuen udal honetan, azter genezan eta, kasua bazen, abenduaren 27 bitarte alegazioak aurkezteko. Txosten hori jaso ondoren, honako alegazio hauek egin ditugu:

**LEHENENGOA.-** Alderdi orokorre dagokienez, adierazi behar da udal inbentarioan lan egiten jarraitzen dugula. Lurzoruaren udal ondarea osa dezaketen hiri-ondasunak banakatu dira jada, Udaleko Osoko Bilkurak berehala onetsi dezan dokumentu hori. Era berean, agiria kudeatzen duen enpresak berehala eta egun gutxi batzuen buruan sartuko ditu partikularren lagapenengatiko alta berriak edo obregatik jada inskribatuta dauden ondasunen aldaketak. Inbentario hori egin ondoren, Osoko Bilkurak onetsiko du, dagokion Informazio Batzordeak alde aurretik txostena eginda, eta ondoren kontabilitatera eramateko ezinbesteko izapidea izanen da.

Gordailuzaintzako operazioei dagokienez, haiek gutxitzeko lan handia egin da azken urteotan. Tradizioz, eta herritarrei erraztasunak emateko asmoz, otorduak eta bestelako ikuskizunak, bereziki jaiekin lotutakoak, Udalaren gordailuzaintzan kobratzen ziren: dagoeneko kendu da hori. Hala ere, oraindik ere sari bidezko ordainketa batzuk geratzen dira, bai eta txikiagoak diren beste batzuk ere, zeinak, gure ustez, nekez egin baitaitezke beste modu batera. Era berean, udal-brigadarekin lan egiten duten bi edo hiru enpresak eskudirutan ordaintzea baino ez dute onartzen, eta dirua gordailuzaintzaren bidetik pasatu beharra daukagu. Alde horretatik, txartel bidezko ordainketa ezarri zen duela zenbait urte; alabaina, herritarrei eskaintzen zaien arren, oraindik nolabaiteko erresistentzia badago. Lan egiten jarraituko dugu hura ahal den guztiak gutxitzeko.

Zerbitzu publikoen kostuari dagokionez, tresna informatiko bat izatea gustatuko litzaiguke, kostu horiek kalkulatzeko eta aztertzeko: duela urte batzuk bageneukan tresna hori. Nafarroako Gobernuak eskuratu zigun hura, baina aurrekontu-egitura aldatzearekin eta Kontabilitate Plan Orokorraren egokitzapenarekin zaharkituta geratu zen. Hala ere, urtero zuzeneko kostuen azterlan bat egiten da tasak onesteko; azterlan hori, hemendik aurrera, aurrekontuari erantsiko zaio.

**BIGARRENA.-** Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak —halakoetan aurretiazko lizitazio-prozedurarik ez dago— elektrizitate- eta gas-hornidurei dagozkie, funtsean. Nahiz eta kontratazio-prozedura irekirik ez egon, saiatu gara horiek kontrolatzen. Hirugarren urtez jarraian, energia-aholkularitzako enpresa baten zerbitzuak izan ditugu, merkatuaren barruan une bakoitzeko hornitzaile onena aholkatzen diguna. Hornidura-puntu bakoitzerako banakako kontratuak sinatzen dira prezio itxian, eta urtero berrikusten dira mugaeguna baino lehen. Aldizkako berrikuspenekin kontratatutako potentziak kontrolatzen dira, prezioak eta fakturazioa berrikusten dira, eta Udalerako irtenbideak planteatzen dira, hala nola kondentsadoreen bateriak jartzea kontsumoak merkatzeko. Ildo horretan, fakturazioa berrikusteko lanaren barruan, esan behar da merkaturatzaile batek gastuen itzulketak eskatu dituela, 7.649 euro eta 9.066 euroko bi abonutan. Zenbateko horiek 2019an ordaindu dira, baina 2018ko kontsumo-gastu txikiagoa egonen litzateke.

Kontratazio-espediteari dagokionez, aztertzen ari gara esparru-hitzarmen bat sinatzea edo Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren kontratazio-zentralari atxikitzea.

Transferentzien ondoriozko diru-sarrerei dagokienez, eta sarrerengatik eta abonamenduengatik likidatu diren diru-sarrerak justifikatzeko agiri jakin batzuk Udalean ez gordetzeari dagokionez, egoera zuzendu da eta dokumentazio guztia erregelamendu bidez ezarritako denboran gordeko da.

Azkenik, Ganberako langileei eskerrak ematen dizkiegu egindako lanarengatik, eta adierazi nahi dugu ahal den neurrian haien aholkuak eta gomendioak kontuan hartuko ditugula.

Murchanten, 2019ko abenduaren 24an

Alkatea, Luis Sancho Martínez

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA**

Murchanteko Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txostenean erantsi ditugu, uste baitugu ez diotela haren edukiari eragiten, eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean, 2019ko abenduaren 27an

Lehendakaria,  
Asunción Olaechea Estanga



